

Gertu Kulturaren Zubiak programak ondarea, dantza eta musika hurbiltzen ditu Gipuzkoako adinekoen egoitzetara

- Programak Gipuzkoako Foru Aldundiko Zaintza eta Gizarte Politiketako Departamentuaren eta La Caixa Fundazioaren babesari du, eta 2025etik diziplina ezberdinetako kultur proposamenak gerturatzen ditu adinekoen egoitza eta eguneko zentroetara.
- 2026an ekimen honek kultura-bitartekaritzarako bide berriak gehitu ditu, dantzaren, mugimenduaren arteen eta musikaren bidez, eta udazkenean jarraipena izango dute esperientzia pilotu desberdinen bidez.
- 2025ean martxan jarri zenetik, egoitza eta eguneko zentro desberdinetako 1.000 adineko baino gehiagok kulturaren onurez gozatzeko aukera izan dute.

2026ko ekainaren 25a

Gertu Kulturak, Zubiak programaren bidez, zubiak eraikitzen ditu kulturaren eta beren egoera edo testuinguruagatik kultura-ekipamenduetara joan ezin diren adinekoen artean. Horretarako, lurraldeko museoko kultura-bitartekaritzako profesionalak egoitza eta eguneko zentroetara joaten dira, museoetako ondarea eta bildumak egoiliarrengana hurbiltzeko.

Gainera, 2026tik aurrera, programak kultur diziplina eta prozesu sortzaile berriak txertatu ditu. Horrela, «Zubiak. Museoa egoitzetara gerturatzen da» lan ildoari beste bi ekimen gehitu zaizkio: «Zubiak. Egoitzak dantzan» eta «Zubiak. Konpasaren erritmora, musika egoitzetan». Diziplina hauetara lotutako kultur sortzaileak egoitza eta eguneko zentroetara gerturatzeko aukera izan dute, egoiliarren arteko topaketak sustatzeko testuinguruak errazteko, hautatu gabeko bakardade egoerei aurre egiten laguntzen dioten jarduera parte-hartzaileak garatzeko eta pertsona guztien kultur-eskubideak bermatzeko.

Adinekoen egoitzentzat Zubiak programa doakoa da Gipuzkoako Foru Aldundiko Zaintza eta Gizarte Politiketako Departamentuaren eta La Caixa Fundazioaren babesari esker. Programak hiru lan-ildo garatzen ditu, helburu komun batekin: kultura-ondaretik, dantzatik, mugimenduko arteetatik eta musikatik abiatuta gozamen-espazioak eta lotura eta oroitzapenak eraikitzea.

Horrela, «Zubiak. Museoa egoitzetara gerturatzen da» programan, kultura-bitartekaritzako profesionalak esperientzia partekatu berriak sortzen dituzte museoetako bildumak eta edukiak adinekoen oroitzapenekin, bizipenekin eta interesekin lotuz, haien parte-hartze aktiboa erdigunean jarriz. Programan parte hartzen duten kultura-bitartekariak alde aurretik formakuntza jaso dute narriadura kognitiboa edo Alzheimerrekin duten adineko pertsonen beharrak ezagutzeko eta museoetako bildumetako elementuak abiapuntu hartuta garatzen dituzte esperientziak egoitzetan. Elementu hauek erabiliz egoiliarren gaitasun kognitiboak aktibatzen dituzte, parte-hartzaileen arteko harremanak sustatuz eta haien gogo-aldartea hobetzen duten dinamikak sortuz.

Bestalde, «**Zubiak. Egoitzak dantzan**» ekimenak gorputza eta mugimendua jartzen ditu kultura-bitartekaritzaren erdigunean; eta «**Zubiak. Konpasaren erritmora, musika egoitzetan**» programak zuzeneko musika-esperientziak hurbiltzen dizkie adinekoei. Azken bi proposamen horiek 2026an garatzen hasi dira esperientzia pilotu gisa, Zubiak programaren eremua museoan esparrutik harago zabalduz.

Programa honek hainbat beharrei erantzuten die. Alde batetik, Gertu Kulturaren lan-ildoetako bat, sormen-prozesuen bidez pertsonen bizi-kalitatea hobetzea helburu duena, bereziki gizarte-isolamenduan edo nahi gabeko bakardade egoeran dauden eta zaugarritasun-egoeran dauden pertsonena. Bestetik, sektoreen eta diziplinen arteko elkargunetik gizarte-beharrei erantzuteko bidean aurrera egiten jarraitu nahi du, kultura-bitartekaritzatik eta irisgarritasunetik abiatuta, eskubideak bermatzeko funtsezko tresna gisa. Zentzu horretan, gizarteratze-programetan sakondu nahi duten sortzaile eta kultura-bitartekarien prestakuntza eta profesionalizaziorako aukera-gune gisa eratzten da.

Bestalde, egoitzek ere nabarmendu dute esperientzia hauek parte-hartzaileengan duten eragin positiboa eta kultura-bitartekarien gertutasuna. Horren adibide da Zumaiako Branka Eguneko Zentroa dugu. Bertan, Euskal Itsas Museoak egindako saioa “oso egokia” izan zela adierazi dute, “izan ere, zentroko pertsona askok lotura zuzena dute itsasoarekin, eta erraz konektatu ahal izan zuten bitartekariak kontatutako eta azaldu zuen guztiarekin”.

Kultur guneetako atepak irekitzea nahikoa ez denean

2025ean programa martxan jarri zenetik, “Zubiak. Museoa egoitzetara gerturatzen da” programaren barruan kultura-bitartekariak tailer parte-hartzaileak garatzen dituzte zentroetan, talde txikietan eta 40-45 minutuko saioetan. Esperientzia horien abiapuntua museoetako bildumak eta edukiak dira. Parte hartzen duten museoan artean Cristóbal Balenciaga Museoa, D'MUSEOA, Euskal Itsas Museoa, Museum Cemento Rezola, Zumalakarregi Museoa eta Igartubeiti Baserri Museoa daude.

Bestalde, «**Zubiak. Egoitzak dantzan**» ekimenak gorputza eta mugimendua jartzen ditu proposamenaren erdigunean. Pertsona bakoitzaren aukeretara egokitutako dinamikak erabiliz, mugikortasuna, koordinazioa eta memoria aktibatzen dira, ongizate fisikoa eta emozionala sustatuz eta adineko pertsonak kultur bizitzako subjektu aktibo gisa ikusaraziz. Alba Fernández sortzailearekin batera garatutako esperientzia pilotuak Aldakoenea, Alaietxe eta Berio egoitzetan eta Elizaran eguneko zentroan egin dira maiatzean zehar.

Azkenik, «**Zubiak. Konpasaren erritmora, musika egoitzetan**» ekimenak zuzeneko musika-emanaldiak eraman ditu hainbat egoitzetara, kulturarako sarbidea erraztuz eta memoriarekin lotutako prozesu kognitiboak lantzen lagunduz. Eragiyok abesbatzaren eskutik, euskal folkloreko eta musika koraleko erreperitorioak iritsi dira Zorroaga egoitzara. Era berean, Oiartzungo herri-musika eskolaren inguruan sortutako Emari taldeak euskal musika-tradizio ezberdinetako piezak eraman ditu Petra Lekuona egoitzara, biolina, alboka, txistua edo gitarra bezalako tresnen bidez. Azken lankidetzan hau Gertu Kultura sareko kide den Soinuenaren laguntzari esker izan da posible.

Zubiak programak Gipuzkoako egoitza eta eguneko zentroetan esperientziak garatzen jarraituko du, eta udazkenean «**Zubiak. Konpasaren erritmora, musika egoitzetan**» ekimenaren barruan jarduera pilotu berriak egingo dira. Horrela, Gertu Kulturak lurraldeko adinekoren kulturarako sarbidea zabaltzen jarraitu nahi du.

Zubiak zenbakitan

Zubiak 2025: parte hartu zuten sei museoek (Euskal Itsas Museoa, Museum Cemento Rezola, Zumalakarregi Museoa, Igartubeiti Baserri Museoa, Cristóbal Balenciaga Museoa eta D'MUSEOA) 21 jarduera egin zituzten egoitzetan, eta 500 pertsona baino gehiagok parte hartu zuten.

Zubiak 2026: museo berberekin eta dantza, mugimenduko arteak eta musikarekin esperientzia pilotu berriak gehituta, programak dagoeneko 31 jarduera garatu ditu, eta ia 600 pertsonak parte hartu dute.

Guztira, 2025ean sortu zenetik, 1.100 pertsonak parte hartu dute Zubiak programan, 52 esperientzien bidez.

Parte hartzen duten museoak:

- Cristóbal Balenciaga Museoa
- D'MUSEOA
- Euskal Itsas Museoa
- Zumalakarregi Museoa
- Igartubeiti Baserri Museoa
- Museum Cemento Rezola

Parte hartzen duten eragileak eta sortzaileak:

- Alba Fernández, artista eta kultura-bitartekaria
- Eragiyok, ahots grabeen abesbatza
- Emari, musika taldea

Gertu Kultura, topaketa eta prestakuntzarako gunea

Gertu Kultura topaketa, prestakuntza eta sektoreen arteko hazkunderako espazioa da, gizarte-sektorearen eta kultura-sektorearen arteko loturak sendotzeko lanean diharduena. Bitartekaritza, prestakuntza eta sentsibilizazio ekintzen bidez, pertsona guztiek beren kultura-eskubideak osotasunez baliatzeko eta komunitateko zein kultur bizitzan modu aktiboan parte hartzeko beharrezko baldintzak sortzea du helburu.

Gertu Kultura Gipuzkoa Apropa Cultura sarearen parte da. Bartzelonan sortutako kultura-erantzukizun sozialeko programa honek ia bi hamarkadako ibilbidearen ondoren kultura inklusibo eta irisgarriaren sustapenean erreferente bihurtzea lortu du.

Gertu Kulturk Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Fundación La Caixaren, Eusko Jaurlaritzaren Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoaren babesa dauka. Gainera Orona Fundazioak, Irizar enpresak, Danobat Groupek, Erbi eta Bitez enpresak proiektuaren laguntzaileak dira.

Informazio gehiago:

Ane Rotaache Alquiza
601 922 572
komunikazioa.gipuzkoa@gertukultura.org